

# BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, guk identifikatutako gabeziari aurre egiteko eskainiko dugun zerbitzua aurkeztu eta zehatz mehatz deskribatuko dugu.

Proiektu honen bidez lortu nahi duguna, gazteok (sexu guztietakoak eta 15-23 urte bitartekoak) sexologiari buruzko informazio zuzena eta argia eskuratzeko aukera izatea da; horretarako, plataforma bat sortu dugu, webgune bat hain zuzen ere. Jadanik, sexologiari buruzko plataforma ugari existitzen dira, baina, gurea besteengandik bereiziko duen ezaugarria, gertutasuna izango da.

Erabiltzaileei era anonimoan ibiltzeko aukera eskainiko zaien arren, horren bidez ez dugu harresi bat sortu nahi erabiltzaile eta sortzaileen artean; hau da, nahiz eta haien identitatea ez ezagutu, gurekin kontaktuan jartzea erraztuko diegu, e-mail bidez, telefonoz... Eta nahi izanez gero, edo baliabideak izanez gero, aurrez-aurreko kontaktua ere eskainiko dugu.



Kontsumitzaileek bi aukera izango dituzte webgunean zehar ibiltzeko: Erregistratu ondoren, perfil baten bidez, eta gonbidatu moduan, era anonimoan (lehen aipatu dugun moduan). Bi aukera hauen desberdintasunak hauek izango dira:

1- Erregistratutako erabiltzaileek e-mail helbidea emango dute eta bertatik erregistratutakoan 0,75 zentimo kobratuko zaizkie (urteroko kuota). Trukean ez dute denbora mugarik izango webgunean nabigatzeko orduan. Gonbidatu moduan dabilzan erabiltzaileak dohainik erabili ahal izango dute, baina 30 minutukoa izango da kontsumitu ahal izango duten denbora kopuru maximoa. Ondoren erabiltzen jarraitzeko interesa badute erregistratu egin beharko dira.

2- Perfila dutenek soilik izango dute foroan zuzenean parte hartzeko aukera, gonbidatuek kanpotik irakurri baino ez dute egingo. Erregistratutakoen aldetik, anonimotua mantendu nahi badute, nahi duten *nickname*-a jartzeko askatasuna izango dute. Ez da beharrezkoa benetako izen-abizenak jartzea nahi ez badute, baina e-mailak erreala izan behar du.

3- Izena eman dutenei e-mail bidez webgunean egindako eguneratzeen berri emango zaie nahi izanez gero, perfila sortzean emango zaie hori erabakitzeke aukera.

Gure webgunea, “user friendly”, hau da, erabilerraza, izango da. Diseinu sinplea eta argia izango du, atal bakoitza identifikatzeko erosotasun eta erraztasun osoa bermatuz. Esate baterako, koloreak argiak eta bista nekarazten ez dutenak izango dira, neutroak. Bestalde, letra mota “Gil Sanz” izango da, hau webguneen esparruan 7 letra mota ulerterrazenetariko bat delako. Hiztegia ere sinplea eta gazte guztiek ulertzeko modukoa izango da, inongo lexiko konplexurik gabe.

Plataforma honek, 4 atal nagusi izango ditu:

- **Sarrera:** Bertan, gure burua aurkeztu eta webgunearen helburua (1. paragrafoan esaten duguna) azaltzeaz gain, ideia nondik sortu den eta nola garatu dugun adieraziko dugu.

- **Informazioa:** Sekzio honetan 6 azpiatal bereiziko dira.

1. Metodo antikontzeptiboak: Metodo guztien zerrenda osatuko dugu, bakoitzaren ezaugarriak adierazi eta alde onak eta txarrak bereizi ondoren, eraginkortasunaren portzentajeak definituz. Azkenik, “ranking” bat txertatuko dugu, aurreko datuetan oinarrituta.

2. Mitoak: Hainbat mito dabilta ahoz aho nerabeen artean. Batzuk egiazkoak izan arren asko gezurra dira. Azpi atal honetan, gezurtatu egingo ditugu gaizki ulertuak eta era honetan istripuak ekidingo ditugu.

3. Gaixotasunak: Lehenengo azpi atalean bezala, gaixotasunen zerrenda bat osatu eta bakoitzaren eragin, prebentzio eta sintomak zehaztuko ditugu.

4. Haurdunaldia: Haurdunaldiaren sintoma nabariak jarriko ditugu, eta egoera desberdinen aurrean, nola jokatu, esaterako, umea nahi edo nahi ez izanez gero zer egin.

5. Masturbazioa: Masturbatzea zer den eta bere onurak zeintzuk diren azalduko ditugu. Ondoren, hau nola egin eta organo sexualak definitu.

6. Sexu harremanak: Sexu harreman motak zeintzuk izan daitezken zehaztuko dugu, pertsona bati sexu harremanak izaten ari den bitartean zer gertatu dakioken azaldu, eta azkenik sexuen arteko

dibertitateaz azaldu (generoarekiko, harreman motekiko etab.) eta askatasunez bakoitzaren gustuak argitzen lagunduko dugu, errespetua eta desberdintasunen onarpena sustatuz.

**-Foruak:** Gaur egungo gazteoi lotsa ematen digu besteen aurrean, edo klasean bertan, gure zalantzak eta dudak azaltzeak. Horregatik, gure web orrian arazo horri irtenbide bat emateko, foru bat sortu dugu. Hemen, erabiltzaileak bere galderak planteatu ahal izango ditu, era anonimoan edo ez, aukera bere esku dago. Hauek, webgunearen beste erabiltzaile batzuk edo gure Osakidetzako adituek erantzunoko dituzte.

**-Contact us:** Gurekin kontatzeko bidea ere emango dugu, posta elektronikoa bidez zein taldeko koordinatzaileen telefono zenbakia eskainiz.

**WEBGUNEAREN HELBIDEA-----> [www.sexinf.eus](http://www.sexinf.eus)**

Jadanik, horrelako webgune gehiago existitzen direnaren jakinean gaude, baina orain arte ikusi duzuen guztiaren ondoren, gureak desberdintasun ugari dituela konturatu zineten.

Hasteko, Eusko Jaurlaritzaren bidez bermatuko da webgunearen fidagarritasuna, bertako informazioa Osakidetzako matrona eta sexologo batek emana izango da, beraz, duda guztiak informazio zuzen eta errealez erantzunak izango dira. Horretaz gain, gurekin kontaktuan jartzeko gaitasuna eta foruan emandako beste gazteen esperientzia pertsonalen bidez harreman informala eta erosoagoa eskuratuko dute erabiltzaileek.